

ADABAKIAK

«IRIYARENA».—Merke eta ondo presentatua eskaini zigun Donostiako Aurrezki Kutxak Jesus M.^a Arozamena eta Tomas Garbizu jaunek gertatutako *Viejas Canciones Donostiaras - Donostiko Kantu Zarrak* (1971). Liburu atsegina bada ere, iker lanean ez hain zehatza. Honegatik, kanta asko dira, Donostian erabiliagatik, jatorriz bertakoak ez direnak ere; inoiz, gainera, egile jakinekoenak izanik. Hala ere, hori da guttienik, zeren bai hutsak eta bai kanta osatugabeak anitz dira liburuaren barna.

«Iriyarena», «Donostiarrik ez zeruan»en tituluz agertzen dute, eta ondorean, titulu hortaz, zezen suzkoarena. «Donostiarrik ez zeruan», edo hobeto esan «Iriyarena» hau, 188garren orrialdean dakar, baina 4 bertso besterik ez ditu. Eta, kanta horrenak, guttienez 10 bertso ezagutzen dira. Ikus, *Gure kanta zar jatorrenak* liburuxka (Librería Mugica. Donostia, urte gabe) 101/105 orr. Baita *Euskal kantak* liburuxkan ere (Izarra. Donostia, 1959) 116/119 orrialdeetan. Behar bada hutsik larrietakoa bada ere, kantaren erdia baino guttiago ematen dutelako, holakoak maiz aurkituko ditugu orrialdeak zehar.

Nonbait sortu eta alde askotara zabalduak, ezta harritzekoa herri bakoitzak bereak direla uste izatea. Hori erabagitzeko euskalkiak ematen digu argia, baina ez beti. Esate baterako, Deba-arruko herrietan bertsogintza gipuzkeraz egiten dute beren euskalkia bizkaitarra izanarren. Baina ez Deba-arrukoak bakarrik, baizik Artibai aldekoak ere joera hori dute, Berriatuko bertsolarietan nabari denez. Beraz, ezta harritzekoa Donostiarrak euren sakura hainbeste kanta sartzea. Plazentziarrak ere egin dute holakorik (edo behar bada cibartarrak), zeren ez esan inguru hoietan «Iriyarena» Plazentziakoa ez denik; ala jaina! Soraluzeko semeak zezen kontuan izanik hain yayoak nork uste bestaldera ditekaneanik? Eibarren beti ezagutu dugu

Plazentziako «Iriyarena» Arozamena eta Garbizu donostiarrak eza-
gutarazi diguten baino bertso gehiagokin, eta Plazentziako zaharren
artean nork ez dakizki hamar bertsoak kantatzen? Meza nagusiko
«Kyrie, *eléison*» baino hobeto bai noski. Bai horixe! Gainera, sora-
luzearrak beren gatz bereziarekin egosia dure «Iriyarena» kanta. Ho-
negatik, 7garren bertsoa beren gisara aldatua. Plazentziarra inper-
nua sartzen delarik, hara zelan heltzen dion kantari:

*Toki hartako berotasunez
bizi ro egarriturik
galdetzen zuen:
«Ez ahal da hemen
inun sagardutegirik?
Neri berrido tokatzen bazait
zeruetara sartzerik
iriarena joagatikan
ez det egingo saltorik.»*

J. S. M.

* * *

EUSKAL LITERATURA 72.—Izenburu hau daraman liburuak,
184. orrialdean, honela dio: «Obra hau 1971.go Agora sarira pre-
sentatu izan zen. Juradoak (Roque Arambarri, Antonio Arrue, José
Antonio Loidi, Juan San Martín, Antonio Zavala) saria «desierto»
deklaratu zuen.»

Auntza hil, ezta gero auntzaren gaberdiko eztula. Baina egile
«kupidagarri» horrek jarri gabe utzi duena, zera izan da: Egile zin-
tzoak, diru beharra zuelako, juraduko bati eskatu ziola saria berari
ematen ahalegintzeko, eta hala ere, estudiante gizajoaren eskari hau
aintzat hartu gabe, saria «desierto» deklaratu zuten. Halakorik!

J. S. M.

* * *

«*LAMINERO*» *ETA LAMINA GOZO-ZALEAK*.—Lehen aldiz
Erronkarin konturatu nintzen gozo-zaleeri «laminero» eta «lamine-
ra» deitzen ziotela, gizonezkoa eta emakumezkoa «o» eta «a»rekin